

## **Basgeg / Basque**

### ***Galestar gazteen bake eta borondate oneko mezua munduko gainerako gazteei zuzendua.***

Tik tak, tik tak. Denborak aurrera darrai eta gu bidegurutzera heldu gara. Klima aldatzen ari da, berehala erantzun beharko diogun arazo larria da.

Gauzak horrela jarraituz gero, ipar poloak ez du luzaroan iraungo, hiru bat urte gutxi gora behera, orain ezagutzen dugun eran. Hala da.

Planetako tenperatura 4 gradu igoz gero, Saharako basamortua iparrerantz zabaltzen hasiko da, Frantziara ailegatu arte. Hala da.

Galeseko pertsona bakoitzak bataz besteko 11 tona CO2 sortzen du urtean. Hala da.

Keniako pertsona bakoitzak bataz besteko 0.2 tona CO2 sortzen du urtean. Hala da.

Ez zenekiela esan dezakezu, baina erregai larregi erabiltzen dugu. Lurrari mineralak kentzen dizkiogula. Xahutzen ditugula, eta zabor larregi botatzen dugula bueltan lurrera. Planeta erahiltzen ari garela.

Gure mezua bera izan zen iaz, eta orain dela urte 2. Denborak oster, ez du inor itxaroten.

Mundu guztiko gazteak gonbidatzen ditugu gurekin bat egin dezaten, gazte galestarrekin, errealitateari aurre egiteko eta gure ahotsak entzunarazteko. Egin dezagun Klima aldaketa ardatzat hartuz ekintza gaia.

Zuri deika ari gara bidegurutzean bide zuzena har dezazun. Atzera begiratzeak ez dauka zentzurik. Gaur aukera berria daukagu, eta biharko eguna zantzuz betea dago.

Tik tak tik tak. Entzun dezakezu erlojuaren hotsa?

Ceredigion gazte foroak sortua.